



**ETORKIZUNERAKO
ZIENTZIARATU**



GORKA ARTOLA ALBERDI
BERGARAKO ALKATEA

AURKIBIDEA

- 2. UDALETXETIK
- 3. PAPER-HONDAKINEN KUDEAKETARAKO PLANTA
- 4-5. EHUNDU ERALDAKETA SOZIALA
- 6-7. BERGARA IZAN, BIZI, EKIN PLANAREN 2021. URTEKO BALORAZIOA
- 8. GAZTELEKUKO SEXOLOGIA AHOLKULARITZA ZERBITZUA
- 9. ZTB JARDUNALDIAK
- 10-11. SAIOA GARITANO JARDUN EUSKARA ELKARTEKO KIDEARI ELKARRIZKETA
- 12-13. BERGARA HOBETZEN
- 14. DESFIBRILADOREAK
- 15. ZUBIETA ETA MASTERREKA KALEETAKO LANAK
- 16. ENRIKE TXURRUKA BERGARAKO MUSIKA BANDA ETA ORKESTRAKO ZUZENDARIARI ELKARRIZKETA
- 17. TURISMO PLANA
- 18-19. LABURRAK
- 20. LABORATORIUM MUSEOA. KOLABORAZIOA
- 21. DEBAGOIENA 2030. KOLABORAZIOA
- 22-23. ALDERDIEN IRITZIAK + TELEFONO INTERESGARRIAK
- 24. UDALBATZA. HARREMANETARAKO BIDEAK

2021eko abendua

© Argitaratzailea: Bergarako Udala
Egilea: Mundu Mira Kooperatiba Elkarte

LASTER LORATUKO DIRA

Balantzea egiteko sasoia izan ohi da urte amaiera askorentzat. Ni neu ere horretan hasita nago azken asteotan.

Egoerak eragindako gorabeherak gorabehera, eta zailtasunak zailtasun, urtea emankorra izan dela esango nuke. Askotariko proiektuak abiatu ditugu, egin nahi genituzkeen beste askoren aurretik lehenetsi direnak, haiek ahaztu gabe baina udalaren mugen jakitun izanda. Guztiak Bergara hobea egiteko, bergarar guztiak hobe bizi gaitezen. Abiatu esan dut, bai, izan ere, horietatik askok lanketa behar dute, eta landareak bezala, ez dira egun batean landatzen eta hurrengoan loratzen.

Eta mugak aipatu ditut, administrazioak orokorrean, eta tokikoak bereziki, inoiz baino kontzienteago garelako aurrera begirako erronkei guk bakarrik erantzuteko ditugun zailtasunez. Horiek apurtzeko modu berriak behar ditugu, egiteko moduak, elkartzeko eta lan egiteko eredu berriak.

Jarduteko eredu berri bat ezartzen ari gara, elkarlanean oinarritzen dena, horrela emaitza aberatsagoa baita, eta epe ertain-luzera begira, legealdietatik harago doana. *Ehundu, Bergara 2030 Egin herrixa* plan estrategikoa, esaterako. Eta estrategikoak izango diren beste hainbat lan ere bideratzen ari gara. Datorren urtean Zubieta eta Masterreka kaleak biziberrituta izango ditugu, Arizurriagan kultura proiektua...

Mimoarekin ari gara lanean. Haziak jartzen hasi ginen orain bi urte, ez edozein hazi gainera. Denbora tarte honetan, beharrezko zaintza egin diegu, ongarrria bota, ureztatu... eta laster loratuko dira.

PRONTO FLORECERÁN

Muchas personas hacen balance al finalizar el año. Yo mismo ya he empezado estas últimas semanas.

A pesar de las circunstancias y de las dificultades, diría que el año ha sido fructífero. Hemos puesto en marcha proyectos de muy variada índole, que han primado sobre otros muchos, pero somos conscientes de los límites del ayuntamiento. Todos ellos con el objetivo mejorar Bergara, para que todas las personas vivamos mejor. He dicho poner en marcha, sí, porque muchos de ellos necesitan elaboración, y como las plantas, no se plantan un día y florecen al siguiente.

Y he mencionado los límites porque las administraciones en general, y las locales en particular, porque somos más conscientes que nunca de las dificultades que tenemos para responder de forma individual a los retos del futuro. Necesitamos nuevas formas de superarlas, nuevos estilos de hacer, nuevos modelos de asociación y de trabajo.

Estamos implantando un nuevo modelo de actuación que se basa en la colaboración, porque así el resultado es más valioso, de medio-largo plazo, que va más allá de las legislaturas. Como con *Ehundu* o el plan estratégico *Bergara 2030 Egin herrixa*. Y también estamos encauzando otros muchos trabajos que serán estratégicos. El año que viene tendremos las calles Zubieta y Masterreka revitalizadas, el proyecto cultural de Arizurriaga...

Estamos trabajando con mimo. Empezamos a plantar las semillas hace dos años, no cualquier semilla. En este intervalo de tiempo, las hemos cuidado, fertilizado, las hemos regado... y pronto florecerán.



Azaroaren 10ean eman
zuen Udala Gobernuak
herritarrei alegazioen
berri bilera irekian.

El Ayuntamiento ha presentado alegaciones de carácter urbanístico y medioambiental al proyecto que la empresa Valogreene Paper BC, S.L. ha presentado para la implantación de una planta de tratamiento de residuos de la industria papelera en Larramendi.

Alegazioak jarri dizkio Udalak Larramendin paper hondakinak kudeatzeko planta jartzeko aurkeztu den proposamenari

Valogreene Paper BC, S.L. enpresak Larramendi poligonoan paper-industriaren hondakinen tratamendurako planta ezartzeko eskaera egin du. Jendaurrean jarritako proiektuan inkongruentziak antzeman zituen Udalak, jarraipen zorrotza egiten ari baitzaio gaiari. Hari alegazioak jartzeko epea egon da azaroaren 29ra arte, eta hala egin du Udalak.

Azaroaren 10ean aurreratu zizkien alegazioak herritarrei Udala Gobernuak Seminarixoan egindako bilera irekian. Eta baita ekainean jardueraren berri izan zuenetik gaur egun arte egin dituen urratsak azaldu ere. Gorka Artola alkateak gaiari hasieratik jarraipen zorrotza egin zaiola azaldu zuen, eta zuhurtzia izan dela jarduteko oinarritzko printzipioa gehitu. “Bergararren ongizatea zaintzea dagokigu, eta hori buruan eman ditugu urrats guztiak”, esan zuen.

Gisa honetako prozedura administratiboetan jarraitu beharreko denborak eta konfidentzialtasuna aintzat hartuta lan egin du Udalak uneoro, eta printzipio horiek ahalbidetu duten neurrian eman zaie informazioa prozesuan zehar, herritar, auzo alkate, talde ekologista eta abarrei. Udala Gobernuaren nahia izan da hasieratik gai konplexu honen inguruko informazio ona edukitzea, eta hori herritarrei helaraztea. Gaiari aditua den aholkularitza kontratatu zuen udalak, eta hark egindako lana, udal teknikariek egindakoa, zein beste aditu batzuk egindako ekarpenak izan ditu oinarri alegazioak prestatzeko.

Udalaren eskumena hirigintzari lotutakoa da. Enpresak udalean eskaera egin zuenean jarduera jakin baterako egin

zuen eskaera, ondoren, ordea, prozedura gauzatu bitartean beste bi izendapen eman dizkio jarduerari. Hori horrela, uztailan emandako hirigintza-bateragarritasun txostena baliorik gabe utzi zen azaroaren 2ko alkatetza dekretu bidez udal arkitektoak urriaren 25ean egindako txostenean oinarrituta.

Alegazioak jendeaurrekoan jarritako dokumentua jaso bezain pronto prestatzen hasi zen udala. Azaroaren 8an egin zen Lurralde batzorde berezian aurkeztu ondoren, 16an onartu, eta azaroaren 22an bidali zituen Eusko Jaurlaritzara, eta publiko egin zituen, hala nahi zuen orok informazio hori eskura izan zezan alegazio propioak egiteko.

Hirigintzari eta ingurumenari lotutakoak dira alegazioak. Laburbilduz, eta hirigintzari dagokionez, indarrean dagoen Plan Orokorrak ez du jasotzen hondakinen kudeaketarako azpiegitura erabilera, eta beraz, ez dago Larramendi industrialdeko H partzelan onartuta. Bestetik, hondakinen kudeaketaren erabilera ere ez da bateragarria, erabilera osagarri bezala onartuta dagoelako, baina ez erabilera nagusi bezala.

Ingurumenari dagokionez, kontuan harturik zuhurtziaren eta kautela-ekintzaren printzipioa eta proiektu teknikoaren kaudimenari buruzko berme teknikoaren gabezia, horrek gomendatzen du jarduera ez baimentzea, gertuan baitaude etxebizitzak eta bizitegi-auzoak. Osatzeko edo zuzentzeko hainbat alderdi ere proposatzen dira.

Prozedura zabalik dago Udalean zein Eusko Jaurlaritzan. Udalak orain arte bezala, informazioa ematen jarraituko du.



Bergarako sarea ehundu

Covid-19ak baldintzatu eta zeharkatutako azken urte honetan Bergarako herrian hainbat prozesu jarri dira martxan egoerari herri ekimenetik erantzuteko. Zaintza sareaz gain, kultur mahaia, tokiko ekonomia, lehen sektorea eta elikadura burujabetza sustatzeko dinamikak eta herri hezitzailea moduko prozesuak aktibatu dira Udalarekin nahiz D2030 ekimenarekin elkarlanean.

Beharrak eraginda eta testuinguruak baldintzatuta hainbat prozesu txiki ez-egituratu martxan jarri dira, eta indar, elkarlan eta ekintza sozial hori baliatu nahi dira modu iraunkor batean komunitateko eragileen arteko koordinazioa aktibatu eta gobernantza publiko kooperatiborako eredu berriekin Bergarak zein eskualdeak dituen beharrak identifikatu, eta behar horiek gaur egungo paradigma eta tokikotasunetik erantzun ahal izateko.

Testuinguru horretan, eta herritar talde baten kezketatik abiatuta, herritarren beharrak entzun eta hauei erantzun kolektibo bat emateko espazio baten beharra ikusi da, Bergarak bere etorkizuna eraikitzeke dituen erronkez jabetzeko, hauek ondo ulertuz eta gaintzeko proiektuak definituz. Behar hauetatik bultzatu da komunitatearen eta Udalaren arteko elkarlana, eta lankidetzeta honetatik sortu da *Ehundu*.

Ehundu surge de dar respuesta a una petición de la ciudadanía. Se trata de un espacio de escucha y respuesta a la ciudadanía, basado en la colaboración pública-comunitaria. Consta de dos partes: proyecto ciudadano y oficina. Ésta última se instalará en la calle Mizpildi, y desde ella se ayudará en temas como soberanía energética, relevo generacional, etc.



ERAKUNDE ETA HERRITARREN ARTEKO ELKARLANA

Bergarako Udalarekin batera proiektu horren sustatzaile dira Olatukoop, MU-Lanki eta Debagoiena 2030. Eta Gipuzkoako Foru Aldundiak laguntzen du Etorkizuna Eraikiz egitasmoaren bitartez. 2021eko deialdian sartu da proiektua, eta haren laguntza izango du: 30.632,68€. Bergarako Udalak, berriz, 80.000€ inbertituko ditu, 40.000€ 2021ean eta beste hainbeste 2022an.

Urriaren 29an Seminarixoan egindako ekitaldi sozialean aurkeztu zen *Ehundu herri dinamika*. Bertan azaldu bezala, dinamika honen helburua da "Bergaran proiektu komunitario integral eta iraunkor bat abian jartzea eta protagonismoa eta erabaki ahalmena herritarrengan, komunitate ezberdinen artean jartzea.

Izenak dioen moduan: denon artean ehuntzea eta elkarren artean sareak eraikitzea nahi da, denon artean herria eraldatzeko. Lankidetzarako jarrera honek herriko erlazioak josteko eta sare edo oihal berriak egitea ahalbidetuko du.

HERRITARRENTZAT AURREZ AURREKO ARRETA

Bi helduleku ditu ekimenak: bulego fisikoa eta herri dinamika. Mizpildi kalean kokatuko da bulegoa. Komunitatearen beharretan laguntzeko lanabesa izango da, herritarren zerbitzura eta udala-komunitatearen arteko zubigintza egiteko.

Informaziorako gunea izatearekin batera, formazioa, aholkularitza eskainiko zaizkie herritarrei bertan, haiek entzuteko, harremanak sartzeko espazioa izango baita. Eraldaketarako zerbitzu konkretuak eskainiko ditu, esaterako: merkataritza erreleborako, proiektu eta pertsonen arteko sinergiak bideratzen lagunduz... Eta hori nola? Olatukoopen laguntzaz formazio, ekintza eta harremanen bidez elkarlan publiko-kooperatiborako heziketa sustatuz herrian.

Ekonomia sozial eraldatzailean oinarritutako proiektuak bideratzeko eta sustatzeko hazitokia izango da. D2030en dinamika batzuk bertatik gauzatuko dira. Energia burujabetzari lotutako proiektuetan Goienarren bitartez bideratuko da, pobrezia energetikoan dauden familia zaurgarriei aholkularitza eta argi indarraren fakturak irakurtzen laguntzeko tailerrak ere egingo dira, adibidez. Egiten den lana sistematizatu egingo da, hori jaso eta hedapenerako euskarrietara eramateko ardura izango du MU-Lankik.

Jaso eta itzuli

Ekaitz Aranberri Zezeaga

HERRITARREN ARTEKO LEHENDAKARIA



Ehundu herritik jaso genuen eskaera bati erantzunez elkarlan-publiko-komunitarioan ondutako proiektu gisa itzultzen diogu herriari. Herritarrak erdigunean, herritarrekin elkarlanean.

Post-it papertxoetan idatzitako esaldietatik haragoko parte-hartze eredu sinisten dugu Udala Gobernu kideok, eta hori praktikan jartzen ari gara.

Azken hilabeteotan bizitakoak erakutsi digu etorkizuneko erronkei erantzuteko elkarlana eta erantzun publiko-komunitarioa ezinbesteko tresna direla. Oinarritako baliabideen inguruko kezka eta hausnarketa areagotu da azkenaldian. Egoera honi erantzunez lankidetzak marko berri baten adierazle da honako egitasmoa.

Helburua da Bergara bizigarria eraikitzea, pertsonak ahaldunduz. Dagoeneko beste hainbat proiektu ere lantzen ari garen moduan, esaterako, *Bergara 2030 Egin herrixa* plan estrategikoarekin. Politika egiteko modu berri bat, legealdi denboretatik kanpo, eta gobernantza eredu berri baten adierazle.

Bergarako badu aurretik esperientzia modu honetan jarduten, eta 1970eko hamarkadako esperientzia (*Promoción Cultural Vergaresa, Alkartu Nai, Autogestión Bergara...*) horren adibide izan daiteke. Bertatik sortu ziren gerora egonkortu diren hainbat ekimen: UNED, Aransgi, Musika Eskola, haurtzaindegia... eta beste hainbat hazia erein zen egitasmo horretan, eta ondare hori ere berreskuratzea garrantzitsua da herriarentzat.

Modu iraunkorrean herriko erronka ezberdinei erantzun ahal izateko denon arteko konfluentzian oinarritu behar gara. Eta horregatik ikusten dugu garrantzitsua Bergarako Udala ere dinamika honen parte izatea.





Herria biziberritzeko zutoin sendoa

Bergara izan, bizi, ekin plana da Udal Gobernuaren iparrorratza. Herritarren ongizatea bermatzea du helburu planak. Gobernuak, herritarrekin eta herriko eragileekin elkarlanean, Bergara atsegina bat eraiki nahi du; jasangarritasunean, feminismoan eta justizia sozialean oinarritutako bizikidetza erraztuko duena. 2021. urtean planean jasotako neurri sorta bat landu du. Urtez urteko begiradatik harago, epe ertain-luzera begira ari da Udal Gobernuak.

Planean jasotakoak, bai, baina beste hainbat egitasmo eskuartearen ari da lanean Gobernuak. Gainera, pandemia bat kudeatu dela ez da ahaztu behar, eta “bide horretan ez dugu inolaz ere atzean laga. Oreka topatzen ere jakin dugu interes ezberdinen artean (bizilagun eta ostalari, esaterako)”, Gorka Artola alkatearen hitzetan. Hori horrela ere, “Udalak aurrera begira jardun du denbora guztian zehar”.

ELKARLANA LANABES

Bi arlotan egindako lana nabarmendu du bereziki alkateak. Batetik, herria biziberritzeko egindakoa. Kultur eskaintza zabala dago, eragileak mugitzen ari dira eta mugimendu berriak sortzen. Udala hori errazten eta bultzatzen ari da, “herri bizi bat nahi dugulako. Egiteko modu

bat daukagu, adostasuna bilatzen duena eta alde ezberdinak kontuan hartzen dituena. Etengabe gabilta eragileekin elkarlanean eta kontrasteak egiten”.

Horren adibide diren batzuk aipatzearren: San Martin eskolako komunitate osoaren parte hartzearekin patioan egin den jolas-leku berria. Jardun Euskara Elkartearekin, enpresa eta eragile sozioekonomikoekin euskara lan munduan sustatzeko ekimena garatzen hastea. Bergara 2030 Egin herrixa plan estrategikoa. Kultura mahaia bera. Intxorta 1937 elkartearekin frankismoko biktimei egindako erreparazio ekitaldia.

BERGARAK MEREZI DUEN LEKUA BERRESKURATU

Nabarmetzeko bigarren arloa, Bergara bailaran eta Euskal Herrian izan zuen pisua berriz irabazteko egiten ari den lana da. Nazio mailako proiektioa izan duten hainbat ekimen egin dira, ondareari balioa ematen, eta ekimen berritzaileak ere martxan jartzen, Bergarak eta bergararrok merezi dugun lekua lortzeko.

Esaterako, Monzon-Ganuzua saria sortu du Udalak Olos Dorrea Fundazioarekin elkarlanean. Uztailean Alkateen mugimenduari omenaldia egin zitzaion, sortu zen 45.



« jartzen

izan, bizi, ekin

urteurrenean, Euskal Herriko leku askotatik etorritako alkateak hartuz. Turismoan salto kualitatiboa egingo da osatu berri den plan estrategikoaren bidez. Eta nola ez, herritik kanpo gero eta erreferentzia handiagoa lortzen ari diren ZTB jardunaldiak.

Lan egiteko moduan ere jarri du begirada Gobernuak. Gobernantza eredu berriak inplementatuz, eta aurretik esan bezala ikusmira epe ertain-luzean jarrita. Esate baterako, eraldaketa soziala bultzatzeko lankidetzeta publiko-komunitarioan oinarritutako Ehundu. Hemendik bideratuko dira Bergara izan, bizi, ekin planeko ekintza asko: energiarekin lotutakoak, lurren politika eta elikadura burujabetzarekin lotutakoak...

Bestetik, Bergararen garapena modu orekatuan, jasangarrian eta adostuan bultzatzeko hainbat plan garatzen ari dira: Bergara 2030 Egin herrixa plan estrategikoa, mugikortasun plana, turismo plana, kirol instalakuntzen inbertsio plana. Datozen urteetarako bidea markatuko dute.

Eta zaugarrienak babesteko ere lanean ari da Gobernuak: euskara premia berezia dutenei aholkularitza ematen, udal etxebizitzak herritarren beharretarako egokitzen, Eusko Jaurlaritzak estaltzen ez dituen gizarte larrialdietarako laguntzak bermatzen, aniztasun funtzionala dutenei aisialdi eskaintza eginez...

ORAINDIK EGIN EZ DIREN BATZUK

Aurtengorako aurreikusitako baina momentuz landu ez diren egitasmo batzuk ere badaude. Emakumeen etxea da horietako bat. Bergarako Udalak berdintasun teknikaria izango du laster, jardun osoz, eta orduan ekingo zaio. Harrera plana 2022ko aurrekontuetan sartuta dago, hortaz, orduan egingo da. Erdigunean parke estalia egiteko arazo teknikoak daude, kokaleku posible gehien azpian garajeak daudelako, eta horrek teknikoki asko zailtzen du. Alternatibak aztertzen ari da Udala. Hala ere, Martinez de Iralan karpa egin da.

El Gobierno de Bergara tiene como hoja de ruta el plan de acción Bergara izan, bizi, ekin. Tiene el objetivo de construir una nueva Bergara en los próximos años. En el año 2021 ha realizado un conjunto de medidas recogidas en el Plan. Más allá de la mirada anual, el Gobierno municipal está trabajando con miras a medio-largo plazo.

Servicio de asesoramiento sobre sexología en el Gazteleku

El Ayuntamiento de Bergara ha puesto en marcha en el Gazteleku un servicio de asesoramiento sobre sexología dirigido a adolescentes de la localidad. Se trata de una experiencia piloto de tres meses de duración, que comenzó el 1 de octubre y finalizará a finales de año.



De este modo se suma otra actividad más a las que ya lleva a cabo durante todo el año el Gazteleku.

En Bergara ya se han ofrecido servicios de asesoramiento sobre sexología en otras ocasiones, pero teniendo en cuenta la sensibilidad y la privacidad del tema ha resultado difícil que las personas acudieran a éstos, más aún las personas adolescentes.

Por ese motivo, en lugar de que las personas acudan a una oficina externa, se ha llevado la oficina a un espacio en el que se socializan las personas jóvenes, y es natural para ellas: el Gazteleku, donde se ha instalado la oficina de asesoramiento Sexune. La asesora acude a la oficina uno de cada dos viernes.

La idea ha sido que la asesora se integrara en la dinámica del Gazteleku, para que las y los jóvenes sientan el servicio cercano y hagan su asesoramiento de forma natural. Tiene contacto directo con las personas usuarias del Gazteleku, y éstas pueden consultarle sobre los temas que les interesan, de forma individual, en grupos reducidos, en cuadrilla, etc., de la forma que les resulte más cómoda. El grupo de educadores y educadoras también gestiona las citas.

Teniendo en cuenta que las educadoras y educadores son personas referentes entre las y los adolescentes, es importante que tengan formación en este ámbito. Formación que están recibiendo de mano de la asesora del servicio.

Una vez que finalice esta experiencia piloto a finales de año, se realizará una valoración del servicio y se decidirá cómo seguir el próximo año. El presupuesto para este año (octubre-diciembre) es de 3.014 euros.

Son muchas las actividades que realizan las personas que acuden al Gazteleku, tanto en el propio local como fuera de él, y de muy diferente índole, como las salidas de verano.

Esperientzia pilotua abiatu da Gaztelekuan nerabeei sexu aholkularitza eskaintzeko. Gazteentzat natural eta eroso den espazio batean txertatu nahi izan da Sexune zerbitzua. Hiru hilabetetako froga urte amaieran amaituko da, eta ondoren balorazioa egingo da datorren urtean jarraituko duen erabakitzeko.

Zientziaren “misterioak” aletzeko ariketa ZTB jardunaldietan

Zazpigarren urtez egin dira ZTB jardunaldiak urriaren 19tik azaroaren 21era. Zientzia, teknologia eta berrikuntza ardatz hartuta, formazioa eta dibulgazioa askotariko esparruetatik landu dira: hitzaldiak, erakusketak, azoka, ikasleentzako jarduerak, tailerrak, Wolfram Encounterra, auzolan digitala... Programan aurreikusitako 23 jarduerak egin dira, horietatik asko emanaldi bat baino gehiagorekin (tailerrak, hitzaldiak). Helburuak beteta igaro dira aurtengoak.

Jardunaldi hauen helburua da kultura zientifikoaren dibulgazioan ekarpena egitea, Laboratorium Museoarekin egunerokoan egiten den lan ildoari jarraituz. Aurtengoari helburu zehatza ere jarri zitzaion: zientziaren eragin zuzena egunerokotasunean ikustaraztea, eta jendeari zientzia gerturatzea, pertsonak “zientziaritzea”. Honela, fisika kuantikoaz edota hidrogeno berdeaz aritu dira adituak ezagutza zientifikorik ez duen jendeak ulertzeko moduan.

Sona eta prestigio handiko hizlariak izan ditugu Bergaran. Ricardo Diez Muiño DIPC zentroko zuzendariak esaterako 'Fisika kuantikoa eguneroko bizitzan' hitzaldiaren bitartez gerturatu zien askori arrotz zitzaian gaia. J.M. Mulet Valentziako unibertsitateko Bioteknologiako katedradunak egin zuen hitzaldiarekin, 'Ekologismo erreala. Zientziaren ikuspegitik, zer egin dezakezu planeta babesteko', ildo berean egin zuen ekarpena. Egunerokoan egiten diren jardueren, keinuen inguruan hausnartzeko oinarria eman diete entzuleei.

Une honetan mundu mailan pil-pilean dauden gaiak ere jorratu dira, eta honela, dibulgazioan bere alea jarri du Bergarak. Esaterako ekologismoa, energiak, burujabetza teknologikoa, ekonomia zirkularra, klima aldaketa edota adimen artifiziala.

Pertsonak zientziara gerturatzeaz ari garela, indar berezia egin da gazteekin. Haiek gustuko dituzten formatuak erabiliz, eta parte-hartzea sustatuz. Aurten Encounterra ere berreskuratu da iazko etenaren ondoren. Bailarako ikerlari gazteak etorkizunaz hitz egiten ere aritu dira.

Euskararen normalizazioan ere ekarpena egin da auzolanean. Ahotsen grabazio maratoiaren bitartez, makinek euskaraz berba egiten ikas dezaten aletxoak jarri dute bergararrek.

Hauek guztiak eragileen arteko elkarlanaren emaitza ona dira. Elkarlana da jardunaldi hauen ezaugarrietako bat eta haien balio erantsia. Bergarako Udalarekin eta Laboratorium Museoarekin batera 17 eragile aritu dira lanean.

Sortu den material guztia ztbergara.eus webgunean jasota dago. Jardunaldien barruan zabalduak 'Hidrogeno berdea klima aldaketaren konponbidea?' erakusketa ikusgai dago Laboratorium Museoan otsailaren 15era arte.

ZTB Zientzia
Teknologia
Berrikuntza
Bergara
ztbergara.eus



Las jornadas sobre ciencia, tecnología e innovación ZTB han puesto otro grano de arena en el objetivo de acercar la ciencia a todas las personas a través de la divulgación. Este año se ha hecho hincapié en visibilizar la importancia de estos temas en lo cotidiano. El material generado está disponible en la página web ztbergara.eus.



**Saioa Garitano Arana
(Bergara, 1980)**

**Jardun Euskara
Elkarteko haur eta
gazte saileko
arduraduna**

“Euskararen erabileran dugu erronka”

Jardun Euskara Elkarteak askotariko proiektu berri eta berritzaileak ditu esku artean. Gau Beltza herrian berreskuratzea sustatu du, eta aisialdi lotutako hainbat proiektutan murgilduta dago elkarteak. Haur eta gazteen aisialdian Euskararen erabilera bultzatu beharrean ikusten du erronka Saioa Garitano elkarteko kideak.

Urriaren amaieran hainbat ekimen egin dira Bergaran gau beltzaren ospakizuna berreskuratzeke, Jardunek sustatuta herriko hainbat eragileren eta Udalaren parte-hartzearekin.

Gau Beltzaren prestaketarekin uztailan hasi ginen. Udalarri urrian egin behar zen Gau Beltzaren inguruko ideiak helarazi zitzaizkion, eta proposamenarekin aurrera egitea pentsatu zen. Gau Beltzaren ospakizuna herrira ekartzea eta herriak egitea nahi genuen, eta uste dugu hau lortu dugula. Bergarako elkarte eta eragile ezberdinekin elkartu eta elkarlanean egitea pentsatu zen. Bakoitzak dituen baliabideekin egun horretarako hazitxo bat jartzea. Urriaren 30a baino lehen, herrian hainbat ekintza egin dira, eta egia esan balorazio positiboa egiten da, baita egunean bertan jasotako emaitzarekin ere. Uste dugu lortu dugula Gau Beltzaren inguruko mozorro, istorio... gurera ekartzea, herriko haur, nerabe, gazte eta helduengana heltzea. Lan handia izan da, baina emaitza oraindik hobea, eta merezi izan du. Datorren urtean ere gai honi eutsiko diogu ilusioz eta gogotsu, hobetu beharrekoak kontuan hartuta.

Aisia, euskara, gazteak... horiek danak batuta gauzatzen du Jardunek bere lana. Hainbat lan ildo dituzue martxan. Zeintzuk?

Azken urteetan euskara elkarteak aisialdian ere indarra hartzen joan da. Alde batetik, Udalak lehiaketara ateratzen dituen ludotekak kudeatzen gabiltza, baita uztailan herriko Udaleku irekiak ere. Bestetik, Txapligu (asteburuko aisialdi taldea), proiektua martxan daukagu. Proiektu hori Jardunek orain dela 12 urte jarri zuen martxan, eta oso ondo baloratzen dugunez honekin aurrera jarraitzea pentsatzen dugu. Familiaren transmisioa lantzeko ere Jolas-leku ibiltariak eta Domeketan familian gozatzen egitasmoak ditugu, haur eta gurasoentzat bideratutakoak. Ikasturtean zehar ikastola, ikastetxe, enpresa eta beste elkarte batzuk aisialdiaren bueltan eskatzen dizkiguten beste zerbitzu batzuk ere ematen ditugu.

AIDAU zerbitzuarekin, Oxirondoko ludotekan azken hilabeteotan aldaketa egin da zerbitzuan. Zergatik eta nola?

Prozesua luzea izan da, baina merezi izan duena, lanketa sakona egin baita. Azken urteotan Oxirondo ludotekako erabiltzaileen perfila ez

zertorren bat herriko errealitatearekin, ondorioz, pasa den ikasturte amaieran hausnarketa prozesu bat jarri zen martxan. Bilerak deialdi bat eta galdetegi bat bidali zitzaizkien herriko familiei, eta haiengandik jasotakoarekin, eta aurrez ezarrita zeuden helburuekin bat zertorren proiektu berri bat martxan jartzea pentsatu zen. Orain, eta momentuz, beste errealitate bat daukagu AIDAU haurren zerbitzuan eta pozik gaude. Beldurrez hasi ginen zalantzak sortzen zitzaizkigulako, baina egia da ez bada aurrera egiten, inoiz ez dugula jakingo ondo egiten gabiltzan edo ez.

Amaitzeaz dagoen urtea berezia izan da, oraindik osasun pandemiaren eraginagatik. Nola kudeatu duzue? Hizkuntzaren erabileran... eraginik izan du?

Pandemia egoera hau beste askorentzat bezala, ez da bat ere erraza izan, baina elkarteak egoera horretan ere aurrera jarraitu du, eta ahal izan duen heinean bere aletxoak jartzen joan da. Zailtasunak zailtasun, momentuko egoerak uzten diguna egiten gabiltza, moldatzen, sortzen, berritzen... baina honek guztiak ere bere alderik okerrera utzi du. Herriko familia askoren egoera ez da erraza izan pandemia honetan, eta gure arloan ere hori nabaria izan da; emozionalki eta hizkuntzaren erabileran gehienbat. Beraz, orain arte bezala jarraitu behar dugu, haur eta gaztetxoekin lanean arlo hauek asko indartzen, beraien erreferente bilakatzen eta gertu egoten beraien behar horiek asetzeko eta bidelagun izateko.

Mintzalagun ibiltaria sortu duzue orain dela gutxi. Nola animatuko zenuke jendea parte hartzera?

Mintzalagun egitasmoaren aldaera berri bat da. Azkenean Bergaran ere

perfil ezberdin eta gustu ezberdinetako jendea dago, eta horrek bultzatu gaitu aldaera berri hau eskaintzera. Ibiltzea gustuko baduzu, euskara praktikatzeko aukera paregabea da.

Herri euskalduna da Bergara. Euskararen normalizazioan aritzen direnek diote erabileran dugula erronka datozen urteetarako. Nola ikusten duzu Bergara?

Ezagutza altua da, baina erabileraren datuekin ez dator bat. Gure erronka erabileran jarriko dugu.

Lan munduan euskara sustatzeko ekimena martxan du Udalak. UEMAren bitartez banketxeekin hitzarmena sinatu da erabiltzaileei zerbitzua euskaraz eman diezaieten indartzeko. Beharrezkoa da arlo guztietan euskararen normalizazioa ematea, ezta?

Noski. Horrelako albisteak entzutea pozgarria da. Agian horrelakoek bultzada emango dute, eta gai honen inguruko hitzarmen gehiago egiten ari direla entzungo dugu?

Nolakoa da Jardunen osasuna une honetan?


Azken 2 urte hauek ez dira garai oso onak izan, baina erronka berriekin hasita gaude, eta bide horretatik jarraituko dugu.

Jardun Euskara Elkarteak tiene entre manos numerosos proyectos para ayudar a aumentar la utilización del euskera. Saioa Garitano, responsable del área infantil y juvenil reconoce que los dos últimos años han sido difíciles. Han impulsado recuperar la celebración de la Gau Beltza.



BERGARA HOBETZEN

- 2021ean EGINDAKO LANAK
- MARTXAN DAUDENAK
- EPE LABURREAN HASIKO DIRENAK





Arrizuriaga
egonkortzea



Angiozarreko
bide zaharra

Eskusarte kalean
asfaltatze-lanak



Rokodromo
berria egin

Espoloia-Urteaga
hoditeria berritu

Bidekurutzeta kalean
asfaltatze-lanak

Labegarrietako
skateparka

Osteta kalea
aneamenduko
sarea berritu



Uberako
eskola-etxea
berritu

Ozaeta auzoko
Ahumategi bidean
eustorma berria egin



Agarre-Gaittao bidea
asfaltatu eta
konpondu

UBERA

Bihotz-biriken suspertzerako desfibriladoreak herriko hainbat puntutan



Herritarren eskura jarri ditu Bergarako Udalak herriko hainbat puntutan, kalean, desfibriladoreak. Eraikin publikoen barruan zeuden batzuk atera dira kalera, eta berriak ere jarri dira uda honetan. Automatikoak dira, erabil errazak. Aparatuen ondoan jarraibideak jasotzen dituzten azalpen orriak daude eta, ahots bidezko oharra ere ematen dituzte makinek, nola erabili erakutsiz.

Larrialdiak edozein momentutan gerta litezkeela eta erabaki du Udalak desfibriladoreak kalera ateratzea, edozein ordutan erabilgarri egon daitezen.

Bihotz-biriken suspertzerako protokolo unibertsala da: 112 larrialdietarako zerbitzura deitu, gaixoaren arnasbideak ireki eta arnasarik hartzen ez badu bihotz-biriken suspertze masajeekin hasi eta desfibriladorea erabili.

Herriko leku hauetan daude desfibriladoreak:



Agorrosin: kanpoan.



Labegarieta kiroldegia: kanpoan.



Frontoia: Atariko aterpean kalean.



Seminarixoa: kanpoan, sarrera ondoko zutabeen.



Osintxu: Txuringokoa kanpoan.



Angiozar: Medikuko kontsultaren kanpoan.

Irizar jauregia: barruko atarian.

Udaletxea: udaltzaingoan.

El Ayuntamiento de Bergara ha puesto a disposición de la ciudadanía desfibriladores en diferentes puntos de la localidad. Este verano se han instalado en el exterior algunos aparatos que se encontraban en el interior de edificios públicos y se le han sumado algunos más instalados en exteriores. Son automáticos, fáciles de utilizar. Junto a los aparatos hay hojas explicativas con las instrucciones y, las máquinas también dan instrucciones de voz, para facilitar su uso.



La revitalización de las calles Zubieta y Masterreka comenzará a finales de año

La obra que se va a realizar en las calles Zubieta y Masterreka es una de las más importantes de estos últimos años.

Los trabajos comenzarán a finales de diciembre. “Primero preparando el entorno y será a principios de año cuando veremos las máquinas trabajando en Zubieta y Masterreka. De hecho, se ha decidido que las máquinas no estén trabajando en el contexto de la Navidad, para causar el mínimo de molestias a la ciudadanía”, explica Juan Luis González presidente de la Comisión de Territorio.

Una vez iniciados los trabajos, y como ya se ha dicho anteriormente, tendrán una duración estimada de 18 meses.

La empresa 'Construcciones Zubieder, S.L.' a la que se le han adjudicado los trabajos por un importe de 2.012.048,62 euros -IVA incluido-, será la encargada de la ejecución de la revitalización. En esta licitación pública, que ha tenido como base de licitación 2.349.976,12€ (IVA incluido), se han presentado cinco ofertas: 'Construcciones Artzamendi SA', 'Altuna y Uria SA', Campezo Obras y Servicios SA, 'Construcciones Moyua SA' y 'Construcciones Zubieder SL'. La encargada de dirigir los trabajos, por otra parte, será la empresa Tyspa.

La ejecución de este proyecto presenta una serie de dificultades, una de las principales en cuanto a movilidad, se refiere a la afección al tráfico en el ámbito local, puesto que son con lbargarai, las calles que más tráfico soportan en el municipio.

“Toda obra de esta envergadura genera molestias o inconvenientes en el día a día de la ciudadanía, por lo que uno de nuestros objetivos es minimizar ese impacto negativo. Vamos a planificar todo el proceso con la premisa del mínimo impacto negativo”, explica González. Para lo que se va a crear un equipo de coordinación formado por responsables municipales, dirección de la obra, oficina técnica municipal, policía local y la empresa ejecutora de la obra.

Tal y como explicó el alcalde Gorka Artola en el pleno de junio de este año, esta es una obra importante para el municipio, puesto que “por primera vez el proyecto condicionará más de un año de presupuesto. Comprometerá un presupuesto a tres años por un total de 2.350.000 euros. Para el Ayuntamiento esta será la mayor inversión en mucho tiempo”.



Zubieta eta Masterreka kaleak berritzeko lanak urte amaieran hasiko dira, ingurunea prestatuz. Ondoren, urtarrilean, ikusiko ditugu makinak lanean bertan. Kale hauek Bergarako zirkulazioan duten garrantzia ikusita, herritarrengan ahalik eta kalterik txikiena eragin dezaten neurriak hartuko dira.

**Enrike Txurruka
Larrañaga
(Soraluze, 1973)**

**BERGARAKO MUSIKA
BANDA ETA ORKESTRA
SINFONIKOAREN
ZUZENDARIA**

“Gizartearen eraldatzean eragile ikusten ditut geure taldeak”

Enrike Txurrukak pandemia bete-bete zegoela hartu zuen Bergarako Musika Bandaren eta Orkestraren gidaritza, eta egoerara egokitu behar izan zuen, baina baikorra da. Bergarak oso panorama musikal aberatsa du. “Herri musikal” honendako areto bat aldarrikatzen du.

2019ko ekainetik zara Banda eta Orkestraren zuzendaria. Nola heldu zara horra?

Soraluzen solfeoan hasi, eta 7 urterekin Bergarako Musika Eskolan hasi nintzen pianoa jotzen. 12 urterekin Alfredok perkusiorako fitxatu, eta ordutik orkestra eta bandako kide izan naiz. Piano ikasketak egin, eta mila saltsa musikaletan ibili arren, enpresaritzak ikasketak izan dira nire ogibide orain arte.

Pixkanaka badoaz Banda eta Orkestra ohikora itzultzen, entseguak elkarrekin egiten, kontzertuak ematen. Nola moldatu zarete?

Denon bezala, egokituz. Konfinamenduan, aktibo mantentzeko aukera bideoak izan

ziren. Gero, entsegutarako protokolo bila, Banden Euskal Federazioa sortu genuen. Eta aukera egon denean, martxan jarri gara. Oraindik ditugun baldintzekin (tarte handiekin, erdibana entseatzen, etab.), oso zaila gertatzen ari da nahi genukeen maila ematea, ordea.

Nolakoa da banda eta orkestraren osasuna uneon?

Egoera puntualaz aparte, ona esango nuke. Herentzia ederra jaso dugu. Musikalari, gure sasoiaren musika titulazioa bateragarria zen ikasketa arruntekin. Horri esker, ikasketa maila altua duten musikari asko ditugu. LOGSE-k, ez-bateragarri egin zituen, eta ondorioz, egungo musikari afizionatuen maila ez da lehengoa. Landu egin behar. Bestalde, gurekin, lagun giroa asko zaindu zen. Koadrila

bat gara, ia familia. Hau ere, lantzen jarraitu behar.

Ze erronka dituzue aurrean?

Garaiak asko aldatzen doaz, eta horietara egokitzea da erronka. Ez bakarrik musikalki, oro har. Ez dut geure burua musika talde soil bezala ikusten, gizartearen eraldatzean eragile bezala baizik. Beti ezagutu dugu gure taldetan baloreen lanketa: elkarlana, berdintasuna, integrazioa, ohiturak, euskara, belaunaldi arteko transmisioa, eta noski, kultura musikalak. Horiek denak landuz, uste dut berez bermatuko dugula etorkizuna.

Aberatsa da Bergarako musika esparrua. Etorkizunari baikor begiratzen diozue?

Oso aberatsa! Ekintzaitetasun izugarria dago. Talde mordoa, kide ugari, kontzertuak, musikalak, musika eskola dinamikoa, ikasle mordoa, zaletu ugari... Altxor hau zaintzeko, lana egin behar da. Hor dirau ordea, betiko aldarrikapenak: herri musikalak bai, baina ekipamenduetan atzera geratu dena. Ulertezina. Lehenengo “auditorioa”, gero “frontoia erabilera anitzeko areto”... baina oraindik hor gaude, frontoiko oihartzuna sufritzen. Kontzertu, antzerki, pailazo, bertso saio, dantza saio, herri bazkari... eta egin ahalko ziren beste hainbat. “Herri musikalak” behar du areto egokia. Etorkizuna bermatzeko oinarrizko pieza.

Begarako Musika Eskolak ekarpena egiten die banda eta orkestrari?

Noski, oinarrizkoa da gure arteko elkarlana. Taldeak gara ikasleen helburu, eta eskola da taldeen harrobi. Hasieratik egon gara lotuak, eta orain ere bagabiltza elkarrekin etorkizuneko proiektuak lantzen.

Enrike Txurruka cogió la batuta de la Musika Banda y la Orquesta de Bergara en plena pandemia, teniendo que adaptarse a la situación, pero es optimista. Bergara goza de un panorama musical muy rico. Reivindica una sala para este “pueblo musical”.



2022-2025 urteetarako Turismo Plan Estrategikoa Gasteizko Beinke enpresak bideratu duen prozesu baten emaitza da. “Gaur egun eskaintzen den turismo eskaintza hobetzea izan da helburua, sistematizatzea, eta horrela Bergarako askotariko ondarea ezagutaraztea, sektore enpresei bultzada ematearekin batera”, Ainhoa Lete Sustapen Ekonomiko, Berrikuntza, Ekintzailetasun eta Turismo zinegotziaren esanetan.

Lau urterako Turismo Plan Estrategikoa du Bergarak

Bergara cuenta a partir de ahora con un Plan Estratégico de Turismo para los años 2022-2025. Fruto de un proceso realizado por la empresa Beinke en la que ha participado el sector. Plantea numerosas propuestas para mejorar la oferta turística del municipio.

Plan estrategikoa eta operazionala idatzi dira prozesuaren hasieran egindako diagnostikotik abiatuta. Plan hau lau ardatzetan banatzen da: gobernantza, gune turistikoa, turismo eskaintzaren eta produktuen garapena eta hobekuntza, marketinga eta kode etikoa. Ardatz bakoitzak hainbat ekintza proposatzen ditu eta hauek garrantziaren arabera mailakatu dira. Mailakatze hori, turismo enpresekin batera egin den prozesuan erabaki da.

2025eko ikuspegia erreferentziatzen hartzen duen eta aipatutako 5 ardatzetan egituratuta dagoen eragiketa-planak 21 programa eta 67 ekintza biltzen ditu. Horietatik batzuk eskualdetik edo goragoko erakundeetatik garatzekoak dira.

Gobernantza, Plangintza, Antolakuntza eta Kudeaketari dagokionez, egungo errealitatera eta atzemandako premietara egokituta, plana kudeatzeko eredu bat eta funtsezko eragileek betebeharreko zereginak biltzen ditu. Ardatz horrek herritarrentzako turismo-sentsibilizatorako programa bat ere jasotzen du.

Lehentasun handia duten ekintzen artean, esaterako, turismoaren kudeaketa birdefinitzea eta egokitzea jasotzen da, Turismo Bulegoaren funtzioak, gaitasunak eta eskumenak, arduradunak ikuspegi teknikitik bistaratu.

Turismo eskaintzaren eta produktuen garapena eta hobekuntza ardatzean proposatzen dira ekintza eta programa gehienak. Planteatzen diren ekintza eta programa asko beste erakundeekin elkarlanean egin behar dira. Dagoeneko, eta hein batean egiten direnei bultzada ematea ere proposatzen da. Adibidez: natura-eskaintza egituratu eta lehiakor baten parte izateko moduko baliabideak eta eskaintza turistikoa identifikatzea, betiere turismo jasangarriaren ikuspegitik. Turismo kulturala eta familia turismoa garatzeko aukera handiak eskaintzen ditu Bergarak. Produktuen formatu berriak zabaldu dira azken urteetan leku askotan: esperientziak, antzetzutako bisitak, jokoak...

Marketinari dagokionez, eta zehaztutako helburuak lortzeko, oinarritzko komunikazio eta sustapen ekintzak egin behar dira.

Lehiakortasunari dagokion atalean, Kalitatea, Prestakuntza eta Berrikuntza Enpresak garatzeko eta indartzeko ekintzak, kultura berritzailea, prestakuntza eta etengabeko hobekuntza biltzen ditu.



Berdintasun plana herritarren ekarpenak jasota itxiko da

Azken hilabeteetan Bergarako Udaleko Berdintasun Arloak 2018-2021 urteetan indarrean egon den Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Planaren ebaluazioa gauzatu du. Une honetan datozen urteetan indarrean egongo

den III. Planaren elaborazio prozesua amaitzeaz da. Herriko eragileekin batera (kolektiboak eta norbanakoak) berdintasun plan berrian jaso beharreko erronkak eta lehentasunak identifikatzeko lana egin ostean, nahi

duen orok iritzia eman dezan, herritarrentzat galdetegia zabaldu da. Egunotan ekarpenak egiteko epea amaituta, jasotako ekarpenekin osatuko da Bergarako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana. [1]

Carta de Eulogio Díez

'Niño de la guerra'

En el número anterior de esta revista que trataba el tema del homenaje realizado a los niños y niñas de la guerra no se trasladaron correctamente las palabras de Eulogio Díez. Este es un discurso que ofreció en Sestao sobre este tema y publicamos como corrección. “Hola, en primer lugar, quiero saludaros a todos y a todas, deciros que no soy orador, pero haré lo que pueda. Me alegro mucho que después de tantos años podamos estar juntos y recordar aquellos tiempos de penas y alegrías. Todos nosotros somos, producto de una guerra, que como

todas las guerras nunca debió de ocurrir. En las guerras no solo hay muertos, mutilados y destrucción, también hay otras desgracias, nosotros somos un ejemplo vivo de ello. Fuimos cruelmente separados de nuestros padres, y 20 y más años estuvimos fuera de nuestra tierra sin saber cuándo podríamos volver. Pero dicho esto, también quiero decir que esos 20 años han sido unos de los más felices de mi vida, Llegué a la Unión Soviética con 11 años, con mi primo Felipe y mi hermana María, y nunca podré olvidar el apoteósico recibimiento que nos hicieron en Leningrado. Así como no podré olvidar como nos educó, cuidó y mimó el pueblo ruso. Todos pudimos estudiar y formarnos. Y

algunos, como es mi caso, trabajar en puestos en los que a cualquiera no se le daba la confianza. Cuando volví a España, casado con una rusa, encontré una sociedad muy diferente. Donde por pedir cosas hoy normales, acabé con mis huesos en la cárcel y durante mucho tiempo teniendo que presentarme ante la policía y la CIA americana. Seguramente la educación que me dieron en la URSS ha hecho que hoy a mis 95 años siga en la brecha, interesado por todo lo que ocurre en el mundo y por todo lo que ocurre a mi alrededor. Y para terminar solo deciros una cosa, que sigo enamorado de Rusia y que estaré eternamente agradecido a su pueblo. Muchas gracias.” [2]



Hiru finantza erakundek hitzarmena sinatu dute UEMArekin eta 44 udalerrri euskaldunekin

Finantza alorrean euskararen erabilera areagotzeko hitzarmena sinatu dute UEMak, Laboral Kutxak, Kutxabank-ek eta Bankoak, udalerrri euskaldunetako 44 alkatekin batera, tartean Bergarakoa. Hizkuntza irizpideak adostu dituzte UEMArekin, eta udalerrri euskaldunetan dituzten bulegoetan euskara lehenetsiko dute hiru finantza erakundeek. Bergarako Seminarixoan urriaren 20an egindako ekitaldian Gorka Artola alkateak nabarmendu du euskaraz bizitzeko apustuan urrats garrantzitsua dela. [3]



Herriko ekonomia suspertzea helburu duen erosketaren bonuen kanpaina berria

Azaroaren 12an hasi, eta abenduaren 31ra arte (lehenago esleitutako diru kopurua amaitzen ez bada) herritarren eskura daude Bergarako herritarrei zuzendutako erosketaren bonuak. %20ko deskontua izango dute bonuok. Kanpaina horretarako, 30.000 euroko laguntza emango du Udalak, eta bonu guztiak erabilia 150.000 euro bideratuko dira. Kanpainen parte hartzen duten establezimenduetan bertan erosi behar dira bonuok. [4]

Rokodromo berria Labegaraietan

Azaroaren hasieran inauguratu da Labegaraieta kiroldean egin den rokodromo berria. Hala, herritarrek egindako eskaerari erantzun zaio. Eskalataile taldearekin elkarlanean estuan lan egin du Bergarako Udalak, eta hain zuzen ere, Aitor Aranzabal kirol zinegotziak hori nabarmendu du inaugurazio ekitaldian. [5]

Monzon-Ganuzaren sarirako artista gazteei deialdia

Bigarren urtez emango dute Bergarako Udalak eta Olaso Dorrea Fundazioak Monzon-Ganuzaren Euskal Utopikoei Saria. Obra artistiko bat da ematen den saria, artista gazte batek sortutakoa. 2021ean, Telesforo Monzonen heriotzaren 40. urteurrenean, berak eta Josefa Ganuzak bezala, bere bizitzaren ardatz Euskal Herria, euskara eta euskal kultura izan duten herritarrak omentzeko sortu zen saria. Artista gazteei lanak aurkez ditzaten deialdia egin zaie, eta abenduaren 31n amaituko da horretarako epea. [6]

(1) Integradas las aportaciones de la ciudadanía se redactará en breve el III. Plan de Igualdad entre Mujeres y Hombres de Bergara. (2) Aurreko udal aldizkarian Eulogio Díez "gerrako umea"ren adierazpen batzuk ez ziren behar bezala jaso. Zuzenketa modua hark idatzitako gutuna argitaratu dugu. (3) 44 municipios euskaldunes, entre ellos Bergara, han firmado un acuerdo a través de UEMA (mancomunidad de municipios euskaldunes) con tres entidades financieras que se comprometen a ofrecer sus servicios en euskera. (4) Nueva campaña de bonos de compra para reactivar la economía local. Aplican un descuento del 20%. La campaña finalizará el 31 de diciembre (si no se agotan antes los bonos). Se venden en los propios establecimientos adheridos a la campaña. (5) A principios de noviembre se ha inaugurado el nuevo rocódromo de Labegaraieta. Trabajo realizado con la participación activa del grupo de escalada. (6) El 31 de diciembre finaliza el plazo para las y los artistas jóvenes que deseen presentar trabajos para el premio Monzon-Ganuzaren.



Laboratorium museoa: zientzia, ondare eta gizarte topagunea

2021. urtearen aurre balorazioa egiten hasi garen honetan, nabarmendu nahi dugu osasun larrialdi egoeran presentzialki egin ezin izan ditugun jarduerak gauzatu ahal izan ditugula aurten, batez ere udatik aurrera.

Aurreko zenbakian esan genuen moduan, Laboratorium “gizarte museoa” izanik, formatu ezberdinetako jarduerak antolatzen ditu, beti herritarrekin eta gizartearekin harreman estua mantenduz, gizartearen beharrak eta ekarpenak kontuan hartuta. Eragile askorekin antolatutako ZTB jardunaldiez gain, ikastetxeei zuzendutako eskaintza berriak sortu eta gehitu ditu museoko lantaldeak bere hezkuntza-programan. Ikastetxeen eskaera nabarmen handitu da gainera, eta 2021-2022 ikasturtean zehar erreserba asko jaso ditu museoak; hala nola, unitate didaktikoak, tailerrak, erakusketak, etab. jasotzeko eskaerak jaso dira.

Azaroaren 18an inauguratutako aldi baterako erakusketarekin, adibidez, “Hidrogeno berdea. Klima-aldaketaren konponbidea?” izenburua duenarekin, oso didaktikoa eta gaurkotasan handiko gaia izanik, ikasleei zuzendutako eskaintza aberasteko asmoa du Laboratoriumek, otsailaren 15era arte ikusgai egongo baita.

Gaur egungo sistema energetikoa erregai fosilen erabileran oinarritzen da. Petroliotik eta gas naturaletik gure etxeak berotzeko eta elektrizitatea sortzeko metanoa lortzen da; baita gasolina eta diesela gure autoak mugitzeko, eta kerosenoa hegazkinak eta ontziak mugitzeko ere. Baina erregai-fosilen erabilerak bi arazo nagusi ditu: erosteko beste herrialdeen menpe gaudela (haiek nahi duten prezioan) eta erabiltzerakoan CO₂-a isurtzen dutela (honek klima-aldaketa areagotzen du). Horregatik, energiari dagokionez independente eta ingurumenari dagokionez jasangarriak izateko aukera ematen diguten ordezko energia-iturriak bilatzen ari dira, hala nola, energia-berriztagarriak eta hidrogenoa.

Erakusketa honetan hidrogeno berdearekin erlazionatutako galdera askori erantzuna eman nahi diogu: zer da? Nola ekoizten da? Jasangarria da? Interesgarri izatea eta gero eta hurbilago dagoen etorkizuneko mundua ulertzen laguntzea espero dugu.

Gaur egungo musoak lantzen ari diren gaien artean irisgarritasunarena dago, eta horrekin bat egin du Laboratoriumek, museo inklusiboagoa izateko bidean urratsak emanez. Testuinguru horretan, eta erakusketa iraunkorra entzumen ezgaitasuna duten pertsonen zabaldu asmoz, Arangsi elkartearekin elkarlanean lortutako emaitza da azaroaren 24an aurkeztu dena. Euskal Herriko museoaren artean lehena omen da adituen arabera. Bergara, beti bezala, aitzindari.

Estos últimos meses Laboratorium Museoa ha ido recuperando la actividades presenciales. Se constata en la primera valoración de este año las numerosas actividades que ha llevado a cabo. Ha dado un paso en la inclusividad ofreciendo la exposición permanente a personas con discapacidad auditiva en colaboración con Arangsi.

D2030

2030



TRANSIZIO ENERGETIKOAREN ERRONKA JOMUGAN

Klima larrialdia izango da seguru asko une honetan gizateriak duen erronkarik urgente eta konplikatuena. Garraioak, industriak, energia ekoizpenak, elikadura sistemak zein kontsumo ereduak irauli beharko dira, 2050erako mundu mailako tenperatura igoera 1,5 gradura mugatuko bada.

Erronka erraldoiari erantzuteko ardura dugu herri zein eskualde mailan ere eta erantzukizun hori bere egiten dute Bergarako Udalak eta D2030ek ere, elkarlanetik, trantsizio energetikoarekin lotutako proiektuak baitituzte esku-artean.

D2030 ekimenak, esaterako, Debagoiengan trantsizio energetikoa sustatzeko prozesua abiatu zuen 2021eko urte hasieran, Debagoiengan iraunkorra, berriztagarria eta inklusiboa izango den eredu energetikoa sustatzeko helburuarekin.

ETXEBIZITZEN ETA ERAIKINEN EREDU ENERGETIKOA ERALDATZEA

Bisio horretara bidean lanean hasteko, erronka horretan eragin esanguratsua duen arlo batetik hasteko erabakia hartu zuen: eskualdeko eraikin eta etxebizitzaren arlotik. Hain justu ere, 2017. urtean Bagarako LKSren eskutik Debagoiengaren karbono aztertaren neurketa egin zuen eta bertan, hiru eremu nagusi identifikatu ziren karbono isurle eta ondorioz, energia kontsumitzaile nagusi gisa: industria, garraioa eta etxebizitzak eta eraikinak.

Azken eremu horretan aurrerapausuak ematen laguntzeko, hiru azpi-erronka nagusitan eragiteko konpromisoa hartu du D2030ek. Eraikinen eraberritze energetikoa sustatzea da lehenengoa; energia berriztagarrien sorkuntza eta kontsumoa sustatzea bigarrena eta trantsizio energetikoaren inguruan sor daitezkeen jardura ekonomiko berriak sustatzea azkena.

ERALDAKETARAKO ESKU-HARTZEA

Etxebizitza eta eraikinen eredu energetikoa eraldatzea konplexutasun handiko egitekoa da, eta horri izaera ezberdinetako proiektu eta ekimenen bidez erantzutea ezinbestekoa da. D2030etik, helburu ezberdinak lantzeko proiektuak sustatuko dira: sentsibilizazioa lantzea helburu izango dutenak, energiaren erronkaren bueltan diharduten eragile eta proiektuen arteko zubiak sustatuko dituztenak, trantsizio energetikoari erantzuteko beharko dugun ezagutza sortzera bideratutakoak, eta baita etorkizuneko eredu energetiko iraunkorrak eta komunitatea erdigunean izango duenaren lehen adibide erreferenteak sustatzea bilatuko dutenak.

ETXEBIZITZAK BIRGAITZEN, BOLUN

Eraikinen eraberritze energetikoa sustatzeko lan-ildoaren baitan jarri dute martxan, Birgaitzen esperientzia, Boluko zenbait etxe modu jasangarri, simple eta merkean isolatzeko proiektua. Elektrizitatearen prezioaren igoeraren gaia pil-pilean dagoen honetan, erronka horri irtenbidea emateko proposamena jarri dute martxan D2030ek eta H-Eneak.

ENERGIA BERRIZTAGARRIEN KOMUNITATEAK

Ehundu ekimenaren barruan, Bergarako Udalarekin elkarlanean, Energia Berriztagarrien Komunitate bat martxan jartzeko oinarriak finkatuak dira dagoeneko.

Gainera, Bergarako Ehundu proiektuan ere bidelagun izango da D2030. Proiektuaren helburua izango da Bergarako zein eskualdeak dituen beharrak identifikatu eta behar horiei gaur egungo paradigma eta tokikotasunetik erantzun ahal izatea. Testuinguru horretan, D2030 ekimenaren funtzioa izango da, eskualde mailan garatzen ari den eraldaketa prozesua Bergarakoarekin konektatzea. Hala, D2030ek, arlo ezberdinetan garatzen diharduen prozesu, azterketa eta proiektu zein metodologiaren inguruko informazioa partekatuko du Bergarako eraldaketa sozialerako bulegoarekin, elkarlanerako aukerak identifikatzeko eta lantzeko helburuarekin.

ehbildu

BERGARARRON ONGIZATEA ZAINDUZ

Larramendi industriagunean Valogreene enpresak jarri asmo duen aktibitateak kezka sortu du Bergaran. Eta ez da gutxiagorako. EHBilduko kideok uste dugu aktibitate hori bertan ezartzeko baldintzak ez direla betetzen, eta proiektua bertan behera uzteko eskatzen diogu enpresari eta Eusko Jaurlaritzari. Bergarako Udalak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailari aurkeztutako alegazioetan argi geratzen den bezala, proiektuak ez ditu betetzen bete beharreko hirigintza eta ingurumen baldintzak.

Osasun eta ingurumen aldetik kezka pizten duen proiektua da, eta horrez gain, Larramendiko garapena guztiz baldintza dezake, eta dagoeneko lehen zantzuak ikusten ari gara. Gaurko eta etorkizuneko lanpostuak daude jokoan. Eta guk Bergaran bizi eta lan egin nahi dugu, herri jasangarri eta osasuntsu batean.

Arantza Tapia sailburuak azaro hasieran proiektuak oniritzi guztiak zituela esan bazuen ere, gaur gaurkoz, ez dauka hirigintza bateragarritasun ziurtagiririk, ezta Eusko Jaurlaritzaren eskumenekoa den ingurumen baimen bateraturik ere.

Hala ere, Eusko Jaurlaritzaren babes osoarekin etorri da proiektua. Eta Bergarako EAJ?

Non dago Bergarako EAJ? Eusko Jaurlaritzarekin komunikazio zuzena izan dute, Bergarako Udalak beste eta informazio gehiago izan dute prozesu osoan zehar, zenbaitetan informazioa lehenago heldu baitzaie eurei Udalari baino. Arriskuak arrisku, Eusko Jaurlaritzarekin batera babesten dute proiektu hori? Bergarako Udalak aurkeztu dituen alegazioei zergatik eman die ezezko bozka? Alfonbra gorria jarri nahi diote proiektuari?

Badirudi ostrukarena egiten ari dela Bergarako EAJ oraingoan ere. Eusko Jaurlaritzan proiektua babesten duen bitartean, kontu horrek eurekin zerikusirik ez balu bezala jokatzeko dute Bergaran. Argi diezagutela herritarroi zein den euren jarrera, eta har dezatela dagokien ardura.

Begarako Hiri Ordenazioko Plan Orokorra udalbatza osatzen duten alderdi guztiek aho batez onartu zuten. Eta araudi hori eskuan, EHBilduko kideok uste dugu Valogreene-ren plantak Larramendin ez duela lekurik. Aipatzekoa da, gainera, Legebiltzarrean EAJ eta

PSE-EE tramitatzen ari diren ingurumen legearen aldaketa. Horren arabera, "Interes Publiko Goreneko Proiektuek" ez dute udal araudia bete behar. Intereseko proiektuak zein diren, eurek erabakiko dute, jakina. Edozein proiektu udalei eta herritarrei inposatzeko bidea zabalduko luke horrek.

Begarako EHBilduk uste du enpresa pribatu baten irabazi asmoak ezin direla egon jendearen ongizatearen gainetik, ezta inongo araudiren gainetik ere. Horregatik, Larramendin ez dugu nahi horrelako plantarik.



GARDENTASUNA ETA AUTOKRITIKA

Gardentasuna da gobernu orok duen betebeharra; alegia, oposizioaren eta herritarren eskura udal jarduerari buruzko informazio guztia eskuragarri jartzea. Valogreene enpresaren kasua EH BILDuko gobernuaren (ez) kudeaketa ereduaren beste adibide bat da: negargarria, iluna, aldez aurretik inongo azterketarik egin gabe hartutako erabakia, eta beti gehiago osoak ematen dien boterea modu autoritarioan erabiliz.

Alkateak hasi zuen enpresa Larramendin ezartzeko prozesu guztia. Ondo baino hobeto ezagutzen zituen proiektua eta enpresak egingo zuen jarduera. Zalantzarik gabe, Bergaran enpresa baten inaugurazioan parte hartu nahi zuen. Berak sinatu zuen hirigintza-baimena, eta bere kokapenari balioa eman zion; hori guztia, oposizioko zinegotziei ezer esan gabe, gogoratu behar dugu horiek ere udalerriko ordezkari hautatuak direla. Ondoren, antzeko enpresa bat bisitatzeko aukera izan zuen, baina bertan ikusitakoak ez zion inolako zalantzarik eragin, ezta bere jarduerak, harik eta egun batean, hainbat agenteren presioak jasotzen hasi zen arte.

EAJ-PNVk prentsaren bidez jakin zuen dekretu bidez lizentzia emateko erabakia atzera bota zuela alkateak. Hori dela eta, informazioa eskatu genuen, idatziz, gertatutako guztia baloratzeko, ez baikenuen ulertzen zer gertatzen ari zen, baina, tamalez, informazioa ukatu egin zaigu. Alkateak zinegotzien idatzi bati erantzuteko duen gehieneko epea, berriz ere, ez du errespetatu; prozesu eta kudeaketa iluna, idatzizko informaziorik gabea, deiak eta telefono-mezuak besterik ez ditugu izan.

Horrela lan egiten du egungo EH BILDuren udal gobernuak, gardentasunik gabe, nora ezean, oposizioari informazioa ezkutatzeko eta kudeaketaren erantzukizuna bere gain hartu gabe. Aurrera egin aurretik, eta herrian zalantza gehiago sortu aurretik, beharrezkoa iruditzen zaigu udal gobernuak gardentasunez jokatzeko eta autokritika egitea, bere ekintzen ondorioak bere gain hartuz, erantzukizunez.

Egunak aurrera doaz, eta Valogreene enpresa Larramendin kokatu ala ez, Udalaren eta Bergarako alkatearen esku dago soilik. Egoera kudeatzeko garaia da gaiari ihes egin gabe, erantzukizuna saihestu gabe.

Begarako EAJ PNV



PSE-EEren espazioa

TELEFONO INTERESGARRIAK

Agorrosin ekintza gunea	943 777 095
Anbulatorioa	943 035 400
Correos	943 764 924
Debagoieneko Ospitalea (Arrasaten)	943 035 300
DYA	943 464 622
DYA Antzuola	943 787 157
Epaitegia (Bergara)	943 038 055
Ertzaintza (Bergara)	943 534 720
Foru Ogasuna	902 100 040
Garbigunea (Bergara)	943 764 442
Gurutze Gorria	943 222 222
Gurutze Gorria (San Prudentzio)	943 765 576
Herribusa	943 765 942
IAT (Bergara)	943 769 753
Larrialdiak (Debagoieneko Ospitalekoak)	943 035 300
PESA	900 12 14 00
SOS Deiak	112
Suhiltzaileak	943 415 301
Taxia (Bergara)	943 761 950
Udaltzaingoa	092 + luz.: 1020 943 779 100 + luz.: 1020

BERGARAKO UDAL GOBERNUKO KIDEAK



GORKA ARTOLA ALBERDI
ALKATEA

Antolakuntza arloko batzordekidea
alkatea@bergara.eus



AINHOA LETE ZABALETA
ALKATEORDEA

Antolakuntza arloko lehendakaria
Berdintasuna
Sustapen Ekonomikoa, Berrikuntza,
Ekintzailetasuna eta Turismoa
Udal Kudeaketa
ailete@bergara.eus



AITOR ARANZABAL GALLASTEGI
ALKATEORDEA

Antolakuntza arloko batzordekidea
Ogasuna
Herritarrak arloko batzordekidea
Kirola
aaanzabal@bergara.eus



KRISTINA MARKINA IGARZA
ALKATEORDEA

Herritarrak arloko batzordekidea
Kultura
kmarkina@bergara.eus



JUAN LUIS GONZALEZ LOPEZ
ALKATEORDEA

Lurraldea arloko lehendakaria
Hirigintza
jlgonzalez@bergara.eus



NAGORE IÑURRATEGI IRIZAR
BOZERAMAILEA

Lurraldea arloko batzordekidea
Auzoak
Ingurumena
ninurrategi@bergara.eus



EKAITZ ARANBERRI ZEZEAGA
ALKATEORDEA

Herritarrak arloko lehendakaria
Euskara
Gazteria
Komunikazioa
Partaidetza
Hezkuntza
earanberri@bergara.eus



JUANJO ASULA TXURRUKA
ZINEGOTZIA

Lurraldea arloko batzordekidea
Obra eta Zerbitzuak
jasula@bergara.eus



ZIHORTZA MARZAN USANDIZAGA
ZINEGOTZIA

Gizarte Zerbitzuak
zmarzan@bergara.eus

EAJ-PNV-KO UDAL ORDEZKARIAK

MAITE AGIRRE IRIBAR

Herritarrak arloko batzordekidea
Antolakuntza arloko batzordekidea
Lurralde arloko batzordekidea
magirre@bergara.eus

LANDER ARREGI INTXAUSTI

Lurraldea arloko batzordekidea
larregi@bergara.eus

IRUNE GALARRAGA EZENARRO

Antolakuntza arloko batzordekidea
Herritarrak arloko batzordekidea
Lurralde arloko batzordekidea
ej-pnv@bergara.eus

ANGEL MURGIONDO MUGIKA

Antolakuntza arloko batzordekidea
ej-pnv@bergara.eus

ESTHER ORTIZ DE ZARATE CARRILLO

Herritarrak arloko batzordekidea
ej-pnv@bergara.eus

JOSEBA ELOSUA URKIRI

Lurraldea arloko batzordekidea
ej-pnv@bergara.eus

MARTIN ETXANIZ

Antolakuntza arloko batzordekidea
ej-pnv@bergara.eus

PSE-EE-KO UDAL ORDEZKARIA

ALBERTO ALONSO MARTIN

Antolakuntza arloko batzordekidea
Lurraldea arloko batzordekidea
Herritarrak arloko batzordekidea
psoe-ee@bergara.eus